



KIROL ZUZENDARITZAREN 2004KO UZTAILAREN 6KO ZIRKULARRA: **FEDERAZIOEN LIBURUAK LEGEZTATZEKO JARRAIBIDEAK**

Indarrean dagoen legeriaren arabera (265/1990 Dekretuaren 38.a artikulua), federazioen dokumentu erregimena honako liburu hauek osatzen dute:

- **Akta-liburuak**
- **Federazio-estamentuen liburuak**
- **Kontabilitate-liburuak**
- eta, hala dagokio, **zor-tituluen erregistro-liburuak**

LIBURUEN EGINBIDEAK (ZIGILUA JARTZEA) A POSTERIORI EGITEKO JARRAIBIDE OROKORRAK:

Behin bakarrik egin daitezke **jatorrizko** liburuen eginbideak eta ordenagailu bidez lortutako orrialde jatorrizkoek osaturiko liburuen eginbideak, hau da, **inoiz ere ez fotokopienak**.

Liburuak behar bezalako orrialde-hurrenkera izan behar dute, 1 zenbakitik hasi eta dagokion zenbakira arte (ez da zilegi 1 zenbakiko bi orrialde izatea), eta **ez da orrialde zuririk edo hutsune handirik utziko**.

Liburu-formatua izan behar dute, alegia, **koadernatuta**, kanutillo bidez edo kiribil bidez osatuak (ez dira onartuko grapatutako orriak, uztai-karpetak edota orriak aske uzten dituen beste edozein molde).

Halaber, **azalak** honakoak jaso beharko ditu:

- Liburuaren izenburua (Federazio-estamentua, Aktak, Kontabilitatea).
- Dagokion ekitaldia (urtea). Urte bakoitzean liburu banaren eginbideak bakarrik egingo dira: **akta-liburu bat, kontabilitate-liburu bat eta federazio-estamentuen liburu bat**.
- Dagokion federazioaren izena.

FEDERAZIO-ESTAMENTUEN LIBURUA

Federazio-estamentuen liburuak lau atal izango ditu. Liburu **bakarra** izango da, 1 zenbakitik hasi eta dagokion zenbakira arte orrialde-hurrenkera egokian eratua (atal berri bat hasten denean, 1. orrialdearen zenbakia aurreko atalaren azkeneko orrialde-zenbakiaren hurrengoa izango da). Atalok hauek dira:

- Atxikita dauden kirol klub eta elkarteak
- Kirolariak
- Teknikariak
- Epailleak

Liburuaren azalak hauek jasoko ditu:

- Izenburua: FEDERAZIO ESTAMENTUEN LIBURUA
- Dagokion federazioa
- Dagokion urtea



- Atalak, argi adierazita zein orrialdetatik zein orrialdetara hartzen duen bakoitzak. Federazio-estamentu guztiak ez badaude, dituenak bakarrik jasoko dira.

Kirolarien, epaileen eta teknikarien ataletan, lizentzia bakoitzak datu hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- Lizentzia zenbakia edo kodea
- Kategoria
- Izen-abizenak
- Sexua
- Jaioteguna
- Kirol mota eta diziplina

Atxikita dauden klub eta elkarten atalean, erakunde bakoitzak datu hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- Kirol Erakundearen Erregistroko inskripzio-zenbakia
- Erakundearen izena
- Herria
- Kirol-mota eta -diziplina

KONTABILITATE LIBURUA

Liburu honetan federazioaren gastuak eta diru-sarrerak jaso behar dira. Liburuak bakarrik "Zorra"ri eta "Hartzekoa"ri dagozkion kontuak ager ditzake, diru-sarrerak eta gastuak edo ohar kontagarriak, federazioaren kontularitzaren egoera, ekitaldiz ekitadi antolatua, islatzeko.

Beste liburuetan bezalaxe, kontabilitate-liburuaren orrialde-hurrenkera ere bakarra izango da, 1 zenbaitik hasi eta dagokion zenbakira arte orrialde-hurrenkera egokian eratua, kontuan hartu gabe egunkari liburu txikiak, nagusiak eta abar.

Liburuaren azalak hauek jasoko ditu:

- Izenburua: KONTABILITATE LIBURUA
- Dagokion federazioa
- Dagokion urtea
- Balizko kapitulu edo liburu txikiak (balantzeak, egunkaria, nagusia eta abar), argi adierazita zein orrialdetatik zein orrialdetara hartzen duen bakoitzak.

AKTA LIBURUA

Akta-liburua **bakarra** izango da, eta **kronologikoki** jasoko ditu akta guztiak, bai ohiko batzarretakoak, bai ohiz kanpoko batzarretakoak eta bai Zuzendaritza Batzordearenak ere. Beraz, ez da zilegi izango akta-liburu bat izatea Zuzendaritza Batzordearentzat eta beste bat batzarretarako.

Beste liburuetan bezalaxe, akta-liburuaren orrialde-hurrenkera ere bakarra izango da, 1 zenbaitik hasi eta dagokion zenbakira arte orrialde-hurrenkera egokian eratua, kontuan hartu gabe akta batetik hurrengora egiten den jauzia.

Liburuaren azalak hauek jasoko ditu:

- Izenburua: AKTA LIBURUA
- Dagokion federazioa
- Dagokion urtea